

KONTSULTA PUBLIKOA, HONAKO FORU DEKRETU HAU PRESTATU AURREKOA: NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILE FUNTZIONARIOEN LANALDIAREN MURRIZKETA ARAUTZEN DUEN APIRILAREN 4KO 27/2011 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUA

Tramitea:	FORU DEKRETUA PRESTATU AURREKO KONTSULTA
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak egin aurretik planteatzen direnak.

Aurreikuspen horiek betetz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritzi gero, planteatutako arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak igor ditzakete helbide elektronikoa honetara: **funcionpublica@navarra.es**. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

1. Konpondu asmo diren arazoak

Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen da.

27/2011 Foru Dekretuaren 3. artikuluan aipatzen da zer kasutan murrizten den Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldia zerbitzuaren beharrak aintzat hartu gabe. 3. apartatuan aitortzen da genero indarkeriaren biktimak diren emakumezko funtzionarioek eskubidea dutela lanaldia murrizteko, hori beharrezkoa bada egiaz babestuak izan daitezzen edota gizarte laguntza osoa izan dezaten.

Gainera, 9. artikuluan aipatzen da lanaldiaren murrizketa nola ordainduko den. Bertan adierazten da proportzionalki txikituko direla, bai funtzionarioen ordainsari guztiak (familia-laguntza salbu, halakorik jasotzen bada), bai gizarte-kotizazioak eta deskontuak, zeinak kalkulatu baitira lanaldi murriztuari dagozkion ordainsarien gainean.

Araudi horren arabera, ez dago inolako xedapenik genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioen lansari-erregimena berariaz arautzeko, horiek lanaldia murrizteko eskubidea erabiltzen dutenean.

2. Araua onestea beharrezkoa eta egokia den

Genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioek lanaldia murrizteko eskubidea honako xedapen honetan dago jasota: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 49 d) artikuluan.

Aipatutako d) apartatu hori aldatu zen martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege-dekretuaren bidez, zeinak presako neurriak hartzen baititu enpleguan eta lanean emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko. Hor paragrafo berria sartu zen, non azaltzen baita emakumezko funtzionarioak ordainsari osoak jasoko dituela bere lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten duenean.

Nafarroako Administrazio Publikoen esparruan gai horri buruzko araurik ez dagoenez, eta Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuan sartutako aldaketarekin bat, beharrezkotzat jotzen da 27/2011 Foru Dekretua egokitzea eta bertan aipamen bat sartzea, genero indarkeriaren biktima izan eta lanaldia murrizten duten emakumezko funtzionarioen ordainsariei buruzkoa.

3. Arauak zer helburu dituen

Arau hau berrikusi nahi da genero indarkeriaren biktima diren Nafarroako administrazio publikoetako emakumezko funtzionarioek beren lanaldia heren bat bitarte murriztu ahal dezaten haien ordainsari osoak ukitzen ez direla.

4. Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak)

Ez da bestelako aukerarik planteatzen.